

LANAREN EKONOMIA IKASTAROA

5. gaiaren praktikak

OTAZUA GARMENDIA, GARIKOITZ

5. GAIAREN PRAKTIKAK: LANGABEZIA ETA ENPLEGUAREN PREKARIETATEA

5.1 praktika

LANGABEZIA MOTAK

Esan jarraian dauden adierazpenak egia ala gezurra diren, eta arrazoitu erantzuna:

1. Langabezia frikzionala bateragarria da enplegu betearekin.
2. Egiturazko langabeziaren kontra borrokatzeko, eskaria suspertzea neurri ona da.
3. Trebakuntza politikek lan eskaintzaren eta eskariaren arteko desoreka kuantitatiboei aurre egiteko balio dute.
4. Eskola adina luzatzea eta erretiroa aurreratzea lan eskarian eragina duten politikak dira.
5. Ekonomien globalizazioak ez du eraginik eskaria areagotuta langabeziaren kontra borrokatzeko politiken eraginkortasunean.
6. Atzeraldi ekonomikoko garaietan soldatak jaitsiz gero enpleguaren hazkuntza eten liteke.
7. Borondatezko langabezia erlazionatuta dago eskari globalaren urritasunarekin.
8. Phillipsen kurbak erakusten duenez, erlazio zuzena dago ekonomia bateko langabezia tasaren eta inflazio tasaren artean.
9. Phillipsen kurbak adierazten duenez, langabezia tasak ez du beheranzko malgutasun handirik hedapen ekonomikoko garaietan.
10. Langabezia ziklikoa erlazionatuta dago lan merkatuaren gardentasun faltarekin.

5.2 praktika

LANGABEZIAREN AZALPENAK

1. Ikuspuntu neoklasikotik, soldaten zurruntasuna da langabeziak irautea eragiten duena. Esan zein diren soldatek beheranzko zurruntasuna izatea eragiten duten faktoreak.
2. Azaldu zer muga dituen langabeziaren kontra borrokatzeko politika keynestar batek ekonomia irekietan.
3. Azaldu labur-labur zer den Langabezia Tasa Naturala edo NAIRU, eta esan zer ondorio dituen epe laburrean nahiz ertain eta luzean langabeziaren kontra borrokatzeko politikak lantzeko garaian.

5. GAIKO PRAKTIKEN ERANTZUNAK

5.1 PRAKTIKA

1. Langabezia frikzionala bateragarria da enplegu betearekin. EGIA

Izan ere, langabezia frikzionalari langabezia tekniko ere esaten zaio.

2. Egiturazko langabeziaren kontra borrokatzeko, eskaria suspertzea neurri ona da. GEZURRA

Egiturazko langabezia lan eskaintzaren eta eskariaren arteko desoreka kualitatiboan ondorio da. Adibidez, langileek ez dutelako dauden lanpostuetan eskatzen den prestakuntzarik. Horregatik, eskari globalak gora egin eta lanpostu berriak sortu arren, arazoak bere horretan jarrai dezake.

3. Trebakuntza politikek lan eskaintzaren eta eskariaren arteko desoreka kuantitatiboari aurre egiteko balio dute. GEZURRA

Egokiak izango lirateke arazo kualitatiboak konpontzeko; 2. puntuari adierazi direnak konpontzeko, adibidez.

4. Eskola adina luzatzea eta erretiroa aurreratzea lan eskarian eragina duten politikak dira. GEZURRA

Lan eskaintza dute eragina. Murriztu egiten dute, hain zuzen.

5. Ekonomien globalizazioak ez du eraginik eskaria areagotuta langabeziaren kontra borrokatzeko politiken eraginkortasunean. GEZURRA

Eragina du eraginkortasunean. Zehazki, inportazioen bidez hedapenaren parte batek kanpora ihes egitea eragin dezake. Adibidez, zergak jaisten badira, jendeak gehiago kontsumitzeko, eta kontsumitzen diren produktuen parte bat inportaziokoa baldin bada.

6. Atzeraldi ekonomikoko garaietan soldatak jaitsiz gero enpleguaren hazkuntza eten liteke. EGIA

Ikuspegi keynestarretik, soldatak jaisten badira, gauza bera gertatuko zaio kontsumoari, ondorioz eskaria eta enpresen salmentak jaitsiko dira, eta enplegua ez da haziko edo suntsitu egingo da.

7. Langabezia subsidio oparoak existitzea egiturazko langabeziaren arrazoietakoa bat izan daiteke. EGIA

Ikuspegi neoklasikotik, hori da egiturazko langabezia eragiten duten faktoreetako bat. Enplegua bilatzeko motibazioa kentzen du edota langabezia aldia luzatzen du.

8. Phillipsen kurbak erakusten duenez, erlazio zuzena dago ekonomia bateko langabezia tasaren eta inflazio tasaren artean. GEZURRA

Alderantzizko erlazioa du: langabezia tasa baxua denean inflazio tasa altua da, eta alderantziz.

9. Phillipsen kurbak adierazten duenez, langabezia tasak ez du beheranzko malgutasun handirik hedapen ekonomikoko garaietan. GEZURRA

Phillipsen kurbak ez digu ezer esaten langabezia tasaren malgutasunari buruz. Lan merkatuaren histeresiak bai ordea, hitz egiten digu joera horri buruz.

10. Langabezia ziklikoa erlazionatuta dago lan merkatuaren gardentasun faltarekin. GEZURRA

Langabezia ziklikoa eskari faltarekin dago erlazionatua, ez gardentasun faltarekin. Langabezia frikzionala bai egon liteke erlazionatua gardentasun edo informazio faltarekin.

5.2 PRAKTIKA

1. Soldataren beheranzko zurruntasuna erlazionatua egon daiteke hainbat alderdirekin:

- Gutxieneko soldatak existitzea.
- Hainbat urtez soldatak igotzeko akordioak biltzen dituzten hitzarmen kolektiboak existitzea.
- Sindikatuek egin dezaketen presioa, langileak mobilizatzeko gaitasuna dela eta.
- Langabezia prestazio oparo samarrak existitzea.
- Soldaten igoera landunekin hitzartzea, eta ez, ordea, langabeekin (insider-outsider ereduak).
- Langabezia garietan enpresa batzuetako soldata mailak bere horretan mantentzea, edo baita igotzea ere, produktibitate mailari eusteko edo dagoeneko trebatuta dauden langileei eusteko.

2. Ekonomia irekietan, eskaria areagotuta eskaria sortu eta langabezia murrizteko politikek eraginkortasun mugatua izan dezakete, hedapenaren parte batek inportazioak igotzea eragin dezakeelako. Adibidez, zergak jaisten badira familien kontsumoa edo enpresen inbertsioak bultzatzeko, baliteke kontsumo horren parte bat inportazioko produktuak erosteko izatea, edo baliteke enpresek egindako inbertsioa beste ekonomia batzuetan fabrikatutako kapital ondasunetan izatea, adibidez. Kasu horietan, hedapenak edo haren parte batek beste ekonomia batzuei egingo die mesede.

3. NAIRU langabezia tasa bat da, non prezioen egonkortasuna bermatuta dagoen. Langabezia tasa hori altuegia bada gizarteak jasan ahal izateko, gobernuak eskaria areagotzeko politikak egin ditzake, langabezia jaistea lortzeko. Hori eraginkorra izango da epe laburrean, baina ez ordea epe ertain edo luzean. Eskaria areagotzean prezioak igoko dira eta, ondorioz, eragile ekonomikoek

beren aurreikuspenak berrikusiko dituzte, soldatak igoko dira eta, azkenean, enplegu maila hasierako egoerara itzuliko da. Horrela bada, eskaria areagotzeko politikek langabezia jaisteko gaitasunik ez dutela eta inflazioa sortu besterik ez dutela egiten jotzen da. Eskaintzan eragiten duten politikak gomendatzen dira, produktibitatea areagotuta.

